

IDATZ EZAZU ESALDI BAKOITZAREKIN BAT EGITEN DUEN ESAERA ZAHARRA
- Aintzat har ezazu *Esaera zaharrak gaika* dokumentua -

1. Horrek erraz ematen du hitza, baina gero bete ez!
•
2. Horrelako gauzak ez dira hemen bakarrik gertatzen.
•
3. Urtarrilean euria ugari egin du. Beraz, badakizu:
•
4. Azaroko eguraldia ikusita, badakigu nolako negua:
•
5. Adostasunik ez dago gure artean. Beraz, ...
•
6. A ze nolako bikotea!
•
7. Hemen irribarretsu ibili ohi da, baina etxean...!
•
8. Denbora gehiago behar baduzu bukatzeko, hartu denbora!
•
9. Ekaitz du izena, baina oso mutil baketsua da.
•
10. Bera ez da isiltzen, eta besteari hitzontzi deitzen.
•
11. Badakizu alferraren leloa, ezta?
•
12. Hobe da zuhurtziaz jokatzeari.
•
13. Askotan, badago aldea uste izatetik hala izatera.
•
14. Zailtasunei komeni da gogoz eta ekinez heltzea.
•
15. Eraginkortasunaren oinarria behaketan dago.
•
16. Apirileko egunak oso aldakorak izan daitezke.

ESAERA ZAHARRAK GAIKA ERANTZUNAK

Denbora

Atzo hala, gaur hola eta bihar auskalo nola /

Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola.

Atzo besarka, gaur atzaparka.

1. Gaur hitza eman, bihar haizeak eraman.

Ibiltari gauean, logura goizean.

12. Begira lehenik, mintza azkenik.

Orain oraingo, gero geroko.

Gaurko izerdia, biharko ogia.

11. Geroa, alferraren leloa.

3. Urtarrila euritsu, urtea dirutsu.

16. Apirileko egunak hiru aro.

Azaroan bero, negua gero.

4. Azaroa hotz, negua motz.

Abenduko eguna, argitu orduko iluna.

Animaliak

6. A zer pareta, karakola eta bareta.

Asko daki saguak, baina gehiago katuak.

7. Kanean uso, etxean otso.

10. Zozoak beleari: ipurbeltz.

2. Zakurrak leku guztietan oinutsik.

Koloreak

Goiz gorri, arrats euri.

Arrats gorri, goiz garbi.

Zuri guztiak ez dira irin.

9. Beltz guztiak ez dira ikatz.

Landareak

13. Ez izan eta bai uste, sasipeko masuste.

Eskola mutilak sasiz sasi, asko jan eta gutxi ikasi.

Ez da arrosarik arantzarik gabe.

Haritz eroriari orok egur.

Intxaurrak bost, hotsak hamabost.

Zenbakiak / Kopurua

Bat eman eta bi hartu, gure etxean ez berriz sartu.

8. Ordu batean egiten ez dena, bitan egiten da.

Urrutiko intxaurrak hamalau, bertaratu eta lau.

Intxaurrak bost, hotsak hamabost.

Bost sosan pupua, eta hamar sosan trapua.

Nahiago dut behin "to" eta ez hamabi "emango".

Egunak ehun lan.

Gutxika-gutxika, asko egiten da.

Hamalau ofizio, hamabost miseria.

Leku Erakusleak

5. Amen, zu hor eta ni hemen.

Gorputz atalak

Atzo besarka, gaur atzaparka.

Begia noraino, nahia haraino.

Harriak ez du begirik.

Begietatik urruti, bihotzetik urruti.

Bistatik urrun, bihotzetik urrun.

14. Ogi gogorrari, hagin zorrotza.

Aditzak

15. Zer ikusi, hura ikasi.

Hartuak, emana zor.

